# IKASTAROAK

## SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK ETXEAN SAGARDOA EGITEKO HASTAPENAK

**Noiz:** Irailak 9, larunbata
**Non:** Potxoenean
**Ordua:** 9:00-13:00
**Hizlariak:** Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain
**Izena emateko:** 943 361114 telefonora deitu edo alkartasuna@usurbil.com helbidera idatzi.
On-line: https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak
Prezioa 15€ (Alkartasunako bazkideak doan).

## BASALANDARE XABOIAK TAILERRA

**Noiz:** Irailak 16, larunbata
**Non:** Potxoenean
**Ordua:** 9:00-13:00
Basalandare xaboien ikastaroa antolatu dugu Jone Aldabaldetreku eta Rita Aldabaldetrekurekin. Eskuzko xaboia osagai desberdinez nola sortu ikasiko dugu, eta partaide bakoitzak xaboi bat eramango du. (Ikasleek tailerrera yogurth ontziak ekarri behar dituzte, molde gisa erabiltzeko.)
**Izena emateko:** 943 361114 telefonora deitu edo alkartasuna@usurbil.com helbidera idatzi.
On-line: https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak
Prezioa 35€ (Alkartasunako bazkideak doan).

## EINEAN GURASO ESKOLAK ANTOLATUTAKO **IKASTAROAK 2017**

### LABOREAK
**Noiz:** Astean behin 2 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakaslea:** Juani 609 41 38 83
Bolilloak, punto cruz, gantxilloa...

### YOGA
**Noiz:** Astean behin 1,5 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakasleak:** Katia 636 71 15 14/Sebas 605 72 28 25
Luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

### PINTURA
**Noiz:** Astean behin 2 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakaslea:** Susana 609 41 38 83
Oleoa, akuarela, pastela...

### ESKULANAK
**Noiz:** Astean behin 2 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakaslea:** Susana 609 41 38 83
Teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

### MASAJEA
**Noiz:** Astean behin 2 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakaslea:** Sebas 605 72 28 25

### SABEL DANTZA / HIP HOP
**Noiz:** Astean behin 1,5 ordu
**Iraupena:** Urria-Ekaina
**Irakaslea:** Uarda 637 25 68 51
Bi dantza hauek ikasteko aukera.

Ikastaro hauek usurbildar guztiei zuzenduak daude, apuntatzeko edo argibide gehiago eskuratzeko irakasleekin harremanetan jarri **irailaren 15a** baino lehenago.

## KZ-GUNEKO IKASTAROAK

### IKASTARO ETA MINTEGIAK

**Oinarrizko Interneta**

**Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi (14 ordu teoria + 6 ordu praktika)**
4-5 16:00-18:00

**Erosketa seguruak Interneten (4 ordu teoria)**
18-19 18:00-20:00

**Doako antibirusak (4 ordu teoria)**
28-29 18:00-20:00

**Urruneko Formazioa**

**Android sistema eragilea** (gaztelaniaz)
**Ofimatika orokorra**
**Twitter** (gaztelaniaz)
**Facebook** (gaztelaniaz)

Irailean Kzgunea: Arratsaldez: 16:00 / 20:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

## UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 09:30-14:00
Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita ● Goizez ●

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | ● | ● |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | ● | ● |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | ● | ● |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | ● | |

Sutegi Udal Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net//usurbil/



*Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura.usurbil.eus helbidera.*

## KULTUR AGENDA 2017ko **iraila**

| | | |
|---|---|---|
| Ostirala 21:00 Artzabal Tabernan | MASUSTA KOFRADIAREN EGUNA | 8 |
| Larunbata-Igandea 06:00 Kiroldegiko aparkalekutik | POSETS (3375 M) BENASQUE BAILARA | 9-10 |
| Santuenean | SANTUENEAKO JAIAK | 15-17 |
| Igandea 10:30 Mikel Laboa plazatik | X. BAXURDE KROSA | 17 |
| Osteguna 19:00 Usurbilgo hainbat txokotan | KALE EKINTZA MUSIKATUA | 14 |
| Ostirala 19:00 Sutegin | MAHAI INGURUA: "TRANSGRESIOA, TABUA ALA DESIRA?" | 15 |
| Ostirala 22:00 Sutegin | "HOZKAILUA" ANTZERKIA | 15 |
| Larunbata 11:00 Santuenea auzoan | ZIRKU JOSTALDIA | 16 |
| Larunbata 18:00 Sutegin | IÑAKI ZIARRUSTA: "ZATARRAREN EDERTASUNA" | 16 |
| Larunbata 22:00 Sutegin | FAKIU ANTZEZLANA | 16 |
| Larunbata Egunean zehar Aginagan | AGINAGAKO ESKOLA TXIKIAREN IV. EGUNA | 23 |
| Larunbata 19:00 Mikel Laboa plazatik | KANTU JIRA | 30 |

## IKASTAROAK

| | | |
|---|---|---|
| Larunbata 9:00-13:00 Potxoenean | SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK ETXEAN SAGARDOA EGITEKO HASTAPENAK | 9 |
| Larunbata 9:00-13:00 Potxoenean | BASALANDARE-XABOIAK TAILERRA | 16 |
| Izen ematea irailaren 15a baino lehenago | LABOREAK, YOGA, PINTURA, ESKULANAK,MASAJEA, SABEL DANTZA/HIP HOP | |

Usurbilgo Udala
Soziokultura Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

Usurbil Kultura
*Herritarron tresna Usurbilgo Kultura zabaltzeko*
**kultura-usurbil.eus**

# USURBILGO KULTUR AGENDA

# 2017ko Iraila






# EKINTZAK

## 8

Ostirala | 21:00 | Artzabal Tabernan

## Masusta Kofradiaren Eguna

2007. urtean eratu zen Masustaren Kofradia Txirristra Tabernan bost lagunekin.

Geroztik, urtez urte ospatzen da irailean Krofradiaren Eguna. Aurten, hamabosgarren kofradea izendatuko da.

Egitaraua:

- · Afari irekia Artzabal tabernan. (Aldez aurretik izena eman behar da.)
- · Kofradegaiaren aurkezpena.
- · Jantzi banaketa eta janztea.
- · Masustaren propietateen irakurketa.
- · Kofrade berriaren zin egitea.
- · Hurrengo urterako kofradegaiaren izendapena.
- · Masustaren ereserkia.

Dena jai eta kantu giroan ospatzen da. Ekintza erabat irekia da etorri nahi duen herritarrarentzat.

## 9-10

06:00 | Kiroldegiko Aparkalekutik

## Posets (3375 m) Benasqueko bailaran

**Antolatzailea:** Andatza mendi taldea

Informazio gehiago: www.andatza.com helbidean.

## 15-17 SANTUENEAKO JAIAK

**Antolatzailea:** Santueneako Jai Batzordea

### IRAILAK 15, OSTIRALA

**17:00** Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik. Ondoren, globo gerra.

**18:30** Buruhandiak eta Ustekabe txaranga.

**19:00** Sardina jana.

**21:00** Musikarien afaria.

**23:30** Kontzertuak: KEZKA, FRIDAYS CREW eta JOXPA ERROMERIA.

### IRAILAK 16, LARUNBATA

**10:30** Pintura lehiaketa.

**11:00/13:00** Zirku jostaldia haur eta gaztetxoentzat.

**13:00** Buruhandiak.

**14:00** Haur bazkaria. (Norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira)

**16:00** Mus txapelketa. (15:30-16:00 izen ematea)

**16:00** Haurrentzako puzgarriak.

**17:30** Txokolatada Zaharren Egoitzaren eskutik.

**19:00** Buruhandiak.

**21:00** Herri Afaria.

**00:00** DJ Mikeltxi

### IRAILAK 17, IGANDEA

**11:00** Toka txapelketa.

**12:00** Hamaiketakoa txosnan.

**14:00** Herri bazkaria.

**17:00** Gorritiren showa. Ondoren, buruhandiak.

**19:30** Piper dastaketa.

**21:00** Festen amaierako traka.

## 17

Igandea | 10:30 | Mikel Laboa plazatik

## X. Baxurde krosa

**Antolatzailea:** Baxurde Txiki triatloi taldea

**Izen-ematea:** Kiroldegian edo www.kirolprobak.com helbidean

Aurtengoan bi ibilbide egongo dira aukeran, 5,2 km eta 10,75 km.

Baxurde Kros Txikia ere egingo da urtero bezala.

Izen emateak, aurrez, www.kirolprobak.com orrian egin daitezke, 10 € txip horiarekin eta 12 € txip horirik gabe.

Parte hartzaile kopurua 350era mugatu da.

## 14-16




## JAUZI! TRANSGRESIOAREN AIDURU

**Antolatzaileak:** Muxurbil eta EHAZE (Euskal Herriko AntzerkiZale Elkartea).

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala

"Transgresioa ozeanoaren maila igotzen delako edo kontinenteko lurrazala hondoratzen delako gertatzen da." Horixe da Harluxet entziklopediak dioena. Ozeano lotsarik eta mugarik gabeak, bere aurrean duena igarotzea erabakitzen du. Ez bere gogoz. Ez bere gogoz kontra. Hala gertatzen da, energiak hori egitera baitarama.

Eta zer gara gu ozeano txiki batzuk baino, gure izaeraren zati handi batean URA baikara; eta HURA nahi dugu. Eta hura lortzeko bide ziurrik ez badakigu ere, dugun mugitzen da (Eppur simuove!), eta gure barne gogoek baliteke espero ez dugun puntura eramatea.

Kulturan eta antzerkian bereziki, transgresioa beti izan da konstante bat, gazteluetako ate sendoak botatzeko ahari buruak balira, makina bat sortzaileek bidea zabaldu baitiote ordurarte debekatua zegoenari. Gizakiak arrain ontzi bat bagina, uraren presioa ezin jasan eta bertatik atera nahi duen itsasoaren metafora.

Aurten berriro datoz *Jauzi! antzerki egunak* Usurbilera. Irailean burutuko ditugu iaz bezala, eta izango da zer ikusi, entzun eta gozatu.

Jardunaldiak Irailaren 14an hasiko badira ere, aurreko astean izango da iragarpen ekimen bat, Lasarteko Dantzarinak antzerki/dantza taldeak pregoi lanak egingo baititu Usurbilgo kaleetan barna "Djinji, djinji" espektakulua eskainiaz.

### IRAILAK 14, OSTEGUNA

**KALE EKINTZA MUSIKATUA**

**19:00etatik aurrera kalean** Usurbilgo hainbat txokotan pieza desberdinak ikusi ahal izango dira; *Daltonak* taldeak "Lapur depresiboak", *Muxurbilek* "Gure heroiak" biak usurbildarrak. Gorka Zubeldia eta *Eñaut Gantxegi transfugek* "Opor politikoak" izeneko lana eskeiniko dute. Alde batetik bestera joateko translazioan, musikaren laguntza izango dugu, musikariek ere pieza bereziak joaz (hauek ere usurbildarrak).

### IRAILAK 15, OSTIRALA

**MAHAI INGURUA "TRANSGRESIOA, TABUA ALA DESIRA?"**

**19:00** Sutegiko auditoriumean.







**Hizlariak:** Kattalin Miner, Oier Gillan eta Manex Fuchs... gure artean izango dira gaiari buruz ausnartzeko.

### IRAILAK 15, OSTIRALA



**"HOZKAILUA" ANTZERKIA**

**22:00** Sutegiko auditoriumean.

**Zuzendaria:** Manex Fuchs **Idazlea:** Inai Iturriaga

**Aktoreak:** Ander Lipus eta Patricia Urrutia

**Sarrerak:** egunean bertan 5€ (3 € ikasle eta langabetuentzat).

Euskal antzerkigintzan erreferentea den Ander Lipusen Huts teatroa taldeak eskainita lan irreberentea eta punkia, Patricia Urrutiak lagundurik.

Maite eta Karlos herririk herri dabiltza hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela.

Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da HOZKAILUA.

### IRAILAK 16, LARUNBATA

**ZIRKU JOSTALDIA**

**11:00** Santuenea auzoan. Haur eta gaztetxoentzako ekintza izango da. Sarrera doan.

### IRAILAK 16, LARUNBATA

**IKASTAROA: "ZATARRAREN EDERTASUNA"**

**18:00** Sutegiko auditoriumean. **Aktore eta zuzendaria:** Iñaki Zirrausta

Ikastaro berezia, ohiko antzerkitik aldendu eta lan egiteko modu berriak arakatuaz.

**Sarrera:** egunean bertan 5€ (3 € ikasle eta langabetuentzat).

### IRAILAK 16, LARUNBATA



**FAKIU AZNTZEZLANA**

**22:00** Sutegiko auditoriumean

**ATX Teatro-ren lana. Zuzendaria:** Iñaki Ziarrusta

**Idazlea:** Fredi Paia

**Aktoreak:** Belen Cruz, Sandra Fdez. Agirre eta Gabriel Ocina.

**Sarrerak:** egunean bertan 5€ (3 € ikasle eta langabetuentzat).

Gosea, txizalarria, maitasuna, gorrotoa, egarria, sexua, beldurra... eta nola ez... biolentzia.

Besteak beste, gure instintuetako batzuk dira hauek. Beraiei esker biziraute dugu historiaurretik gaur egun arte. Oinarrizko erremintak izan dira, badira eta izango dira bizitzan aurrera egiteko, animalia guztiekin partekatzen ditugun tresnak. Ezin izango genuke bizi hauetako bat kentzen badigute, ez ginateke bete-beteak izango.

Baina EZZZ!!! Biolentzia ez!!! ezin dugu biolentzia erabili!!! Eta egia da, arrazoi gabeko biolentzia ezin da erabili... baina arrazoia balego, ... egon liteke biolentzia erabiltzeko arrazoirik?... eta beste biderik ez dagoenean? ... zer egin genezake bizirauteko? Galderak dira, besterik ez... erantzunak publikoaren esku daude.

## 23



Larunbata | Egunean zehar Aginagan

## Aginagako Eskola txikiaren IV. Eguna

**Antolatzailea:** Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

**11:00-13:00** Haurrentzat sormen tailerrak, jolasak, jolas erraldoiak, puzgarriak...

**14:00** Bazkaria (aurretik apuntatu beharko da)

**16:30** Munduan Berbena ikuskizuna

**18:30** Dantzaldia.

## 30



Larunbata | 19:00 | Mikel Laboa plazatik irteera

## Kantu jira

**Antolatzailea:** Usurbilgo Euskal Kantu Taldea

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala

Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.